BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1454

180/2013 DEKRETUA, martxoaren 12koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari atxikitako Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren zuzendaritza-karguen zerrenda onartzeko dena.

Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-karguen estatutu pertsonala arautzen du. Dekretu horren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak, zuzenbide pribatuko ente publikoak edota sozietate publikoak atxikita dituzten sailetako titularren proposamenez, ente horietako zuzendaritza-karguen zerrenda onartuko du dekretu bidez.

Artikulu horren arabera, halaber, proposamen horiek zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako organo artezkariek hartutako erabaki bidez egingo dira, urtero, eta, erabakietan bertan, dekretu horren ondorioetarako zuzendaritza-karguak zeintzuk diren zehaztuko da.

Aipatu manuan xedatutakoaren arabera, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ente publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2013ko otsailaren 13an egindako bilkuran, entearen zuzendaritza-karguen zerrenda aldatzea proposatu du, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen zuzendaritza-kargu bakarra zuzendari nagusiarena onartuz.

Hori dela dela eta, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.3 artikuluan eta otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak –zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-karguen estatutu pertsonala arautzen duenak– 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko martxoaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ente publikoaren zuzendaritza-karguen zerrenda onartzea, otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako. Zerrenda hori honako karguak osatzen du:

– Zuzendari nagusia.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da ekainaren 30eko 435/2009 Dekretua (uztailaren 10eko EHAA), Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari atxikitako Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoko zuzendaritzako kargudunen zerrenda onartzeari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko martxoaren 12an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.